

Felipe Zubia Olaskoaga

MEDIKUA

Zein da onartu litekeen egia?



sasun munduan lan egiten dugu-nontzat, gaixoari informazioa ematea da dagoen gauzarik zailenetako bat, berri txarrak eman behar direnean bereziki. Zenbat eta zein informazio eman behar den neurtu beharra daukagu, eta nola ematen den bereziki, gaixoaren jarrera egokia bilatzeko.

Sarritan aipatzen den gaia da, baina neurtzen zaila. Gaixoaren izaeraren arabera, batentzat lagungarri dena bestearentzat etsigarri izan litekeelako. Liburuek eta adituek diotenez, gaixoak onar lezakeen informazioa eman behar zaio, epeka, kaltegarri ez bihurtzeko. Neurria hartzeak ematen dizkigu lanak, hori jakitea oso zaila baita.

Aldaketa handiak eman dira azken urteotan alor honetan. Duela gutxi arte, jarrera erabat paternalista jarraituz, medikua zen informazioaren jabe bakarra, eta berak hartzen zituen erabaki guztiak, gaixoa eta bere ingurukoak kontuan hartu gabe. Pixkanaka, gaixoak geroz eta protagonismo handiago hartu du, azken finean bera baita bere gorputza, osasuna eta bizitza delako. Osasun langileon lana gaixoari laguntzea



DANI BLANCO



Zilegi al da gaixoari informazioa ezkutatzea?

Zer zenuke nahiago irakurle, egia osoaren

jakitun izan, ala ezjakinean egon,

gaitzak aurrera egiten

duen bitartean



da, informazioa ematea, aukera ezberdinak azaltzea, eta hautatzen laguntzea. Ondo informaturiko gaixoak jarrera positiboa hartuko du, tratamenduan lagunduko digu, eta sendaketara iristea lortuko digu.

Baina zer egin gaixotasuna sendaezina denean? Gaixoari esan ala ez esan? Noiz? Nola? Medikua onartu, bere ingurukoekin batera, gaixoaren nortasuna aztertzea da,

bere jarrera eta usteak, eta horren arabera, informazioa ematen joan. Zilegi al da gaixoari informazioa ezkutatzea? Zer zenuke nahiago irakurle, egia osoaren jakitun izan, ala ezjakinean egon, gaitzak aurrera egiten duen bitartean.

Azken finean, heriotzari baino gehiago, bakardadeari, sufrimenduari eta minari dio beldurra gizakiak. Zorionez, medikuok ere ikasi dugu sendaezin den gaixoari laguntzen, beti asmatzen ez badugu ere. Berarekin izango gaituela jakin behar du gaixoak, bere minak eta estutasunak arinduko dizkion botikak baditugula, eta azkena iritsita, ez dugula alferrikako kalbarioa luzatuko. Gure betebeharrak sendatzen saiatzea delako, eta sendatu ezin denean, arintzen laguntzea, beti gaixoaren alboan. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Ez gaituzte bakean uzten. Muga polizien barrutia da. Alde batera zein bestera, uniforme ezberdinekoek inguratzen gaituzte gu mugatuz. Goizeko hamaikak. Eguneroko kafeak hartuz egunkariak irakurri, eta ohiko ibilaldia burutu ondoren, *Berria* besapean kotxera egin dut etxeratze asmoz. Ez ditut hirurehun metro egin eta CRSak gelditu eta baztertzeko keinua egin didate. Motorra itzaltzeko agindua. Paperak. Guztiak atera dizkiet. Furgonara joan dira eta bost bat minutu luzez eduki naute zain. Bat inguratu zait eta furgonera joateko agindu dit. Jarri eta galdetzen hasi zaizkit zeuden

Beren bakeek

hiruak. Zertan nenbilen galdezka. Justiziarekin zorraz banituela esan dit batek. Nik ezetz. Galderak zehazten hasi zaizkit.

Nik, ez niela erantzungo. Furgonaren aurrealdetik gaztelaraz itaundu didate. Bi gazte kaleko jantziez. Gaztelako azentuez haserre plantak egiten hasi zaizkit. Ez niela erantzuteko motiborik. Lagun bat ikusi dut berinatik, hogeit bat metrora kotxea aparkatzen. Konturatu dira. PAFera eramango nindutela pentsatu dut. Berrogei minutuko egonaldiaren ostean paperak itzuli eta joan nintekeela esan dit uniformedunetako batek. Hamar bat kilometrokoa kostatu zait zangoen ikara, bihotz taupadak eta tentsioa bere onera ekartzen. ■